

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideen artean, hiru motatakoak bereiztu ahal ditugu, ondorengoak direnak: baliabidea fisikoak, baliabide intelektualak eta giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Hasteko, baliabide fisikoetan fabrika bat izango dugula esan behar da, bertan, arropa egiteko erabiliko ditugun makina guztiak egongo dira. Txinan, gela bat izango dugu, gu laurok elkartzeko eta ideiak gure artean eztabaidatzeko. Hemen bertan 4 telefono deiak egiteko eta 4 ordenagailu gure web-gunea diseinatzeko egongo dira. Hainbat aulki eta mahai izango ditugu erosoago lan egiteko, aproposena delako hauetakoak izatea.

Baliabide intelektualetan eta giza baliabidetan, aipatu dezakegu kontuak Anderrek egingo dituela, arropa Angelak diseinatuko duela (batez ere forma), salmentarako abilezia Ainhoak eramango duela, eta azkenik Ixonek fabrika antolatuko duela esan dezakegu. Ixonek makina guztiak egoera honetan daudela egiaztatuko du. 2 egun eramango dio lan hau, eta hilabetero egingo du. Bakoitzari edota fabrikako 100 langileei bere zeregina azalduko die, eta haien betebeharrak betetzen dituztela konprobatuko du.

Azkenik, finantza-baliabidetan gure aurrezkiak izango ditugu, hau da bakoitza 70.000 euro. Hauek, hasieran eskatuko ditugu eta ondoren gure irabazkiak erabiliko ditugu, hau da, saldutako gauzengatik, hobeto esanda saldutako arropa desberdinetatik lortuko dugun dirua aurreztuko dugu guk ditugun gastuak ordaintzeko.